



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
DATA / FECHA: 2018/05/23
HASIERA / INICIO: 20:30
AMAIERA / FINAL: 20:35

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA / ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan ́lvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gairerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko maiatzaren 9ko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 9 de mayo de 2018.

2.- Leader eremuko laguntzak.-

Kontuan hartuta 2018 ekitaldirako Leader eremuko lantudalerrien bultzada, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzak arautzen dituen Garapen Ekonomikorako eta Azpiegiturarako Kontseilariaren apirilaren 24ko agindua, EAeko Landa Garapenerako Programan onarturikoa, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen San Kristobal auzoko berrurbanizazio-lanetarako laguntza eskatzea.

2.º.- Ayudas zona Leader.-

Vista la Orden de 24 de abril, de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, por la que se regulan, para el ejercicio 2018, las ayudas destinadas a la promoción, al desarrollo y a la diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona Leader, aprobada en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar ayuda para las obras de reurbanización del barrio de San Cristóbal.

3.- Baja biztanleen Erroldan.-

Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 72. artikulua araberak, eta kontuan hartuta Errolda Kontseiluko Herrialdeko Atalaren aldeko txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen J. M. U. B.ri ofiziozko baja ematea Biztanleen Udal Erroldan, okerreko izen-emategatik.

3.º.- Baja del Padrón de habitantes.-

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, y visto el informe favorable emitido por la Sección Provincial del Consejo de Empadronamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes, por inscripción indebida, a J. M. U. B.

4.- Emakida-besterentzea San Antonion.-

Tokiko Gobernu Batzordeak jakin zuen Sukarrietako Udalak San Antonion hondartzako emakidak Udal honi besterentzearen aurka egin duela, 2017ko abenduaren 14ko Bizkaiko Batzar Nagusien akordioak hirugarren baldintza oinarri eta desegokikeriagatik, aipatu akordioari helegitea jarri baitzaio administrazioarekiko auzibidean.

Hori ikusita, Kostaldeen Demarkazioak entzunaldia eskaini dio Udal honi.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen entzundira joatea, Sukarrietako Udalak adierazitakoaren aurka egiteko.

4.º.- Transferencia de concesiones en San Antonio.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que el Ayuntamiento de Sukarrieta se ha opuesto a que se transfieran a este Ayuntamiento las concesiones existentes en la playa de San Antonio, en base a la cláusula tercera del acuerdo de las Juntas Generales de Bizkaia de 14 de diciembre de 2017, y a la inoportunidad, dado que el citado acuerdo está recurrido en vía contencioso administrativa.

A la vista de lo anterior, la Demarcación de Costas ha abierto un trámite de audiencia a este Ayuntamiento.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó comparecer en dicho trámite oponiéndose a lo manifestado por el Ayuntamiento de Sukarrieta.



5.- A. A.k aurkezturiko idazkiari uko egitea.-

Ondoren, A. A.k aurkezturiko idazkia irakurri zen. A. izan zen Udalak, 2018ko otsailaren 21eko Tokiko Gobernu Batzordearen akordio bidez, San Antonioko hondartzan denboraldiko establezimendua baimentzeko egindako eskaeraren bultzatzailea. Bada, idazkian dio bere garaian egin zuen eskaerari uko egin nahi diola.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen denboraldiko establezimendua baimentzeko eskaera (baimena 2018ko apirilaren 26an eman zen, ebazpen bidez) bertan behera uztea, EAEko Kostaldean Demarkazioaren aurrean.

5.º.- Renuncia al escrito presentado por A. A.-

A continuación, se dio lectura al escrito presentado por A. A. (promotora de la solicitud formulada por este Ayuntamiento para la autorización de un establecimiento de temporada en la playa de San Antonio, según acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local de 21 de febrero de 2018), en el que manifiesta su renuncia a la petición formulada en su momento. A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó renunciar ante la Demarcación de Costas del País Vasco a la solicitud de autorización para la instalación de establecimientos de temporada, que fue concedida por resolución de 26 de abril de 2018.

6.- A. A. Q.ren eskaera.-

Kontuan hartuta A. A. Q.ren eskaera, San Antonioko hondartzatik gertuko lursail pribatu batean izozkiak saltzeko postu bat jartzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen baimena ematea, baldin eta ez badu itsaso eta lehorrerako eremuko bide-zortasuna inola ere okupatzen, eta alde batera utzita bestelako baimenak eskuratu beharra.

6.º.- Solicitud de A. A. Q.-

Vista la solicitud de A. A. Q. para colocar un puesto de venta de helados en un terreno privado cercano a la playa de San Antonio, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar la instalación, con la condición de que en ningún caso se ocupe la servidumbre de tránsito de la zona marítimo terrestre, y sin perjuicio de la necesidad de obtener otras autorizaciones.

7.- R. E. H. K.en eskaera.-

Kontuan hartuta R. E. H. K.ek aurkeztutako eskaera, San Antonioko hondartzan ehungintzako produktuak saltzeko kaleko postu bat ezarri ahal izateko, 2018ko ekainaren 1etik irailaren 1era, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen dagokion baimena ematea.

7.º.- Solicitud de R. E. H. K.-

Visto el escrito presentado por R. E. H. K. solicitando la instalación de un puesto ambulante para la venta de productos textiles en la playa de San Antonio, desde el 1 de junio hasta el 1 de septiembre de 2018, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la citada autorización.

8.- “Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra Elkartearen” eskaera.-

Kontuan hartuta “Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra Elkarteak” Busturiko herri-erakundearen fitxategian izena emateko aurkezturiko eskaera, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ez onartzea; izan ere, jarduera-esparrua soilik Busturiko udal-mugartean duten elkarte eta talde egonkorrek baino ez dute aipatu fitxategian sartzeko aukera (indarreko Busturiko Udaleko Herritarren Partaidetzari eta Informazioari buruzko Araudi Organikoaren 48. bis artikulua).

8.º.- Solicitud de “Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra Elkarte”.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la petición de “Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra Elkarte”, para su inscripción en el fichero de entidades populares de Busturia, dado que al mismo únicamente pueden tener acceso las asociaciones y grupos estables que tengan su ámbito de actuación exclusivamente en el término municipal de Busturia (artículo 48 bis del vigente Reglamento Orgánico de Participación e Información Vecinal del Ayuntamiento de Busturia).

9.- Sukarrietako Udalaren idazkia, zergei buruzkoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak Sukarrietako Udalaren apirilaren 27ko 22/2018 Alkatetza Dekretuaren berri jaso zuen, zeinetan adostuta dagoen:

9.º.- Escrito del Ayuntamiento de Sukarrieta sobre tributos.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del Decreto de la Alcaldía del Ayuntamiento de Sukarrieta 22/2018 del 27 de abril, en el que se acuerda:



“1.- Ez onartzea Busturiko Udaleko Alkate-Presidenteak aurretik egindako erreklamazioa, 2018ko otsailaren 1eko erantzunaren kontra, zeina eman zitzaion San Antonio enklabe ohiko erroldari eta zergak (udal ondasun eta zerbitzuen zergak zein tasak) kobratzeko zerrendei buruzko informazioa eskatu zuenean, informazio hori dagoeneko emana zegoelako, 78/2016 zenbakiko jatorrizko prozedura arruntean emandako 131/2017 Epaia behin-behinean betearazi zenean.

2.- Busturiko Udalari jakinaraztea Udalbatza honek Udal Harremanen Zuzendariarengana joko duela, argi dezan Bizkaiko Batzar Nagusien Akordioko hirugarren baldintzaren baitan ba ote dauden San Antonio inguruko zergen, tasen eta, oro har, diru-sarrera publiko guztien likidazioa eta bilketa, edo soilik udaran salmenta-postuak edo kioskoak jartzeko egindako lagapenetatik eratorritako diru-sarrerak, enklabean dauden establezimenduen Ekonomia Jardueren Zergarenak eta Udalkutxa udal-finantzaketarako funtsen banaketa-irizpideenak, zeinak eragiten dieten biztanleria-galerari, azalera-galerari eta San Antonioko hondartzara doan lagun-kopuruari”.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu Zuzendariarengana jo eta beraren txostena berretze dezan eskatzea; txosten hori epaitegian aurkeztu zuen, eta bertan adierazi zuen 2017ko abenduaren 14ko akordioko hirugarren baldintzak aipatu hiru zergak besterik ez duela barne hartzen, gainerako guztia kanpo utzita.

“1.º- Desestimar la reclamación previa formulada por el Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Busturia contra el acto de contestación de 1 de febrero de 2018 a su petición previa de información documental sobre los padrones y listados cobratorios de los distintos tributos locales, tanto impuestos como tasas de los bienes y servicios municipales existentes en el antiguo enclave de San Antonio, por cuanto que dicha información ya fue facilitada con motivo de la ejecución provisional del fallo de la Sentencia n.º 131/2017 recaída en el procedimiento ordinario de origen n.º 78/2016.

2.º.- Informar al Ayuntamiento de Busturia que esta Corporación municipal va a formular consulta al Director de Relaciones Municipales al objeto de que aclare si la cláusula tercera del Acuerdo de Juntas Generales de Bizkaia alcanza a la liquidación y recaudación de los tributos, tasas y, en general, de todos los ingresos públicos en la zona de San Antonio, o bien solo abarca los ingresos provenientes del otorgamiento de concesiones para la instalación de puestos de venta o kioscos en época veraniega, del Impuesto de Actividades Económicas de los establecimientos ubicados en el enclave y de los criterios repartos de los fondos de financiación municipal Udalkutxa que afecta a la pérdida de población, pérdida de superficie y asistencia a la playa de San Antonio”.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse al citado Director para solicitarle que ratifique su informe, aportado en sede judicial, en el que manifiesta que la cláusula tercera del acuerdo de 14 de diciembre de 2017, se refiere única y exclusivamente a los tres impuestos que se citan, quedando excluidos todos los demás.

10.- R. U. H. aparkaleku-txartela.-

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorritako aldeko txostena aintzat hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen R. U. H.k eskatutako ezinduentzako aparkaleku-txartela ematea.

10.º.- Tarjeta de estacionamiento de R. U. H.-

Visto el informe favorable emitido por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la tarjeta de estacionamiento para minusválidos, solicitada por R. U. H.

11.- Izoeki-saltokien enkantea.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion izozki-saltokien enkantea hutsik geratu zela, ez zelako eskaerarik aurkeztu.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen beste enkante bat deitzea (aurrekoaren oinarri berberekin).

11.º.- Subasta de puestos de venta de helados.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que la subasta de venta de puestos de helado había quedado desierta al no haberse presentado ninguna solicitud.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó convocar una nueva subasta con las mismas bases de la anterior.

12.- O. B.n eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak Alkate jaunak eta Etxebarria andreak 2018ko maiatzaren 2an O. B. bizilagunarekin gaizki-uleratu bat argitzeko egindako bileraren berri jaso zuen.

12.º.- Solicitud de O. B.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la reunión mantenida el 2 de mayo de 2018 por el Sr. Alcalde y la Sra. Etxebarria con el vecino O. B. para aclarar un malentendido.



Hark gestioak egin nahi zituen, beste erakunde batzuetan, Euskal Herrian 1570etik 1920ra egondako irlandarrei buruzko informazioa ikertzeko, digitalizatzeko, prozesatzeko eta artxibatze bere proiekturako finantzaketa lortzeko; eginkizun horretan, Udalak laguntza emango zion, horretarako prest agertu baitzen proiekturako finantzaketa lortzeko beste erakunde batzuetan egindako gestioetan.

Era berean, argitu zuen eskatu nahi zuela, berak eta ez bestek erabiltzeko, Udalaren gomendio-gutun ofizial bat, "Dagokionari" izenekoa, non Udalak adieraziko duen beste erakunde batzuetan egin beharreko gestioak babesten dituela.

Hori ikusita, eta 2017ko urriaren 4ko akordioak nahastea eragin dezakeela iritzita, Udalak baduela beste herri-erakunde batzuetan (Eusko Jaurilaritza, Aldundia, etab.) eragiteko gaitasuna eman dezakeelako, eta ez da halaxe, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu akordioa baliogabetzea, eta B. jaunari jakinaraztea Busturiko Udalak ezin diola laguntzarik eman ikerketa-proiekturako finantzaketa lortzeko.

Él quería poner en marcha gestiones ante otras instituciones con el fin de obtener financiamiento para su proyecto de investigar, digitalizar, procesar y archivar la información relacionada con los irlandeses en el País Vasco desde 1570 a 1920, con la ayuda del Ayuntamiento tal y como así lo había acordado el 4 de octubre de 2017, cuando el Ayuntamiento manifestó su disposición para colaborar con el Sr. Breatnach en las gestiones ante otras instituciones con el fin de obtener financiación para el proyecto.

También aclaró que solicitaba, para uso personal, una carta oficial de recomendación del Ayuntamiento, titulado 'a quién corresponde', donde el Ayuntamiento señalase su apoyo a las gestiones ante otras instituciones.

A la vista de ello, y considerando que el acuerdo de 4 de octubre de 2017 puede inducir a error por aparentar que el Ayuntamiento tiene unas capacidades de influir en otras entidades públicas (Gobierno Vasco, Diputación, etc...), cuando en realidad eso no es cierto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó revocar el citado acuerdo y manifestar al Sr. B. que el Ayuntamiento de Busturia no puede colaborar con él en obtener financiación para su proyecto de investigación.

13.- Beotegi inguruko argiztapena.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Beotegi inguruko argiztapena hobetzea, honela: markesina inguruan dagoen zuhaitz bat moztuta eta markesinari erantsita ordezkoko argiztapena ezarrita.

13.º.- Alumbrado en la zona de Beotegi.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó mejorar el alumbrado en la zona de Beotegi, eliminando uno de los árboles existentes en la zona de la marquesina y colocando un alumbrado supletorio adosado a la misma.

14.- Altamirako plazan aireko lineak lurperatzea.-

Kontuan hartuta Altamirako plaza inguruko aireko lineak lurperatzeko obrak finantzatzeko arazoak, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen auzoko 34. eta 35. etheen arteko tartea kentzea.

14.º.- Soterramiento de líneas aéreas en la plaza de Altamira.-

Ante los problemas surgidos para la financiación de la obra de soterramiento de líneas aéreas en la zona de la plaza de Altamira, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó eliminar de ella el tramo comprendido entre las casas 34 y 35 del barrio.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, Alkate jaunak eta egiaztapena damaion Idazkariak sinatutako akta hau idatzi zen.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez